



Arartekoaren 2019R-401-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa. Horren bidez, Barakaldoko Udalari gomendatzen zaio, berrikus dezala kexagilearen amaren mendekotasun graduaren aldaketak (2016ko irailean jakinarazi zitzaion udalari) data horretatik 2019ko otsailera arte ordaindu zuen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kuotan izandako eragina.

Aurrekariak

1.-Herritar batek, amaren legezko tutoreak, kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Barakaldoko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) dela eta. Zehazki, salatu zuen, une hartan udaleko zerbitzu hori ematen zuten langileen 2017ko abenduaren 1eko greba zela-eta, amari emango zioten arretaren ordutegiaren berri aurrez eman ez izana. Greba egunean zerbitzu hura amaitu zenean eman zitzaiola ere salatu du, eta normalean baino ordubete gutxiago.

Kexagilearen aburuz, gertaera horiek Lan eta Justiziako sailburuaren 2017ko azaroaren 29ko agindua, greba horren oinarrizko zerbitzuak finkatzen dituen, ez betetzea dakarte; beraz, enpresa zigortu egin behar zen.

Horregatik, kexagilea ez dago ados gai horri buruzko kexa aurkeztu zuenean udalak emandako erantzunarekin.

Bestalde, interesduna ez dator bat 2016ko urtarriletik, hau da, amaren zerbitzua ematen hasten denetik, kobratzen dituen EELZren kuotak udalak berriz kalkulatu ez izanarekin, nahiz eta hala eskatu duen eta bere egoera aldatu egin den denboran zehar; izan ere, mendekotasunaren II. gradutik III.era pasa da, eta ahalmen ekonomikoa nabarmen murriztu zaio.

2.-Udalari laguntza eskatuta, gai horiei buruzko Barakaldoko Udalaren lehenengo txostena jaso zuen Arartekoak, eta hari erantsi zitzaizkion kexan jasotako bi gaiet lotuta interesdunari bidalitako mezu elektronikoko guztiak.

2017ko abenduaren 1eko EELZren greba eguneko gutxieneko zerbitzuak betetzeari dagokionez, Barakaldoko Udalak zerbitzuko enpresa esleipendunak emandako erantzuna ere igorri zion Arartekoari; haren edukia kexagileari ere helarazi zitzaion gertatutakoari buruz galdetu zuenean. Jarraian transkribatzen da, gaia hobeto ulertu ahal izateko:

“Las organizaciones sindicales ELA, LAB, UGT y LSB-USO convocan huelga el 1 de diciembre del 2017 de 12:30-14:30.

Según la orden del 29 de noviembre de 2017 de la Consejería de Trabajo y Justicia los servicios mínimos establecidos son lo siguientes:





1-Se prestará el servicio de comida. Se deberá acudir en la medida de lo posible a alimentos precocinados o de previa preparación.

2-Se realizarán los servicios de higiene personal diaria, uso de WC, en su caso, eliminación vesical e intestinal, de ayuda para levantarse y acostarse, para vestirse y de supervisión de toma de medicamentos y de alimentos.

3-Se realizarán labores de acompañamiento de aquellas personas usuarias para acudir a centros sanitarios cuya cita haya sido concertada previamente y no pueda ser postergada.

4-Para las personas que estén encamadas, los cambios posturales necesarios.

Los servicios mencionados se prestarán únicamente a aquellas personas con grados de dependencia II y III.

En el servicio de la usuaria XXX, las funciones que se realizan son la higiene personal, punto que entra dentro de los servicios mínimos. A parte de la higiene, también se sale a pasear y a tomar café. Por último, si el hijo no está en el domicilio también se le da de comer pero no es lo habitual ya que es él quien casi siempre se ocupa de esto último.

La huelga fue entre las 12:30-14:30 y el servicio a la usuaria se le realiza de 13:30-15:30, por lo que ese día tuvo 1h de servicio, es decir, de 14:30 a 15:30, para respetar el derecho a la huelga, se retrasó 1 hora la atención personal.

La decisión tomada en la usuaria, fue para poder comulgar el derecho a la huelga, y de la misma manera cubrir los servicios mínimos indicados en la misma."

Udalak Arartekoari bidalitako txostenean ere adierazi da kexagilearen amari arreta eman zitzaiola: ordubeteko zerbitzua eman zitzaion eta tarte horretan gutxieneko zerbitzuari zegozkion higiene pertsonaleko zereginak bete zituzten langileek. Azkenik, jakinarazi zaio, kexagileak gertatutakoa salatu zuenean, udalak enpresarekin adostu zuela, hemendik aurrera, greba egunetan izango zuten ordutegiaren berri emango zitzaiela aurrez senideei eta erabiltzaileei.

Zerbitzuko kuotak berriz kalkulatzeari dagokionez, udalak erakunde honi adierazi dio ez duela finkatuta kuotak eguneratzeko edota berrikusteko epealdi zehatz bat.

3.-Jasotako erantzuna ikusirik, Arartekoak, ebazpen honen bigarren zatian azalduko diren arrazoiengatik, ez zuen berriz galdetu kexan jasotako lehenengo gaiari buruz. Aldiz, bigarren gaiari emandako erantzunaren gaineko gogoeta bat





helarazi zion Barakaldoko Udalari, zehazki, EELZren kuotak eguneratzeko edota berrikusteko epealdi bat finkatuta ez duelako baieztapenari dagokionez.

Barakaldoko EELZren prezio publikoa arautzen duen ordenantzak xedatzen duenez, erabiltzaile batek ordaindu beharreko kuota zehazteko orduan lau elementu hartu behar dira kontuan: prezio publikoa, pertsonaren ahalmen ekonomikoa, bere ekarpenaren ehunekoa eta bertan aurreikusitako kenkariak.

Ordenantza berean ezartzen denez, hirugarren elementua (erabiltzaileek zerbitzuaren kostuari egindako ekarpenaren ehunekoa) diru-sarrerara tartean arabera finkatutako ordenantzan bertan udalak ezarritako eskala baten arabera zehaztu behar da, kide bakarreko bizikidetzaren unitate baten diru-sarrerak bermatzeko errentarako aurreko urtean indarrean dagoen zenbatekotik abiatuz.

Eguneratze horrek, zenbaitetan, erabiltzailearen diru-sarrerak aldatzea eta beste diru-sarreraren tarte batean egotea ekar dezakeela aintzat hartuta, Arartekoak ehuneko hori urtero eguneratzeko ordenantza berean ezarritako betebeharra aipatu zuen.

Laguntzeko bigarren eskaera horri erantzunez, udalak txosten bat igorri zion Arartekoari, eta haren edukiaren berri ebazpen honen hurrengo atalean emango da.

- 4.-Kexagileari Barakaldoko Udalak emandako azalpenak helarazita, grebaren betearazpenaren gainean udal horrek emandako argudioekin ados ez dagoela adierazi du berriz, eta errepikatu zuen behin baino gehiagotan eskatu zuela amak ordaintzen duen EELZren kuotak berriz kalkulatzeko, denborak aurrera egin ahala haren egoera aldatu egin zelako.

Alde batetik, 2016ko irailean mendekotasunaren III. gradua aitortu zioten amari (horren ondorioz, zerbitzu ordu gehiago eman zitzaizkion). Bestetik, ahalmen ekonomikoa nabarmen murriztu zitzaion, udaleko zerbitzuarekin batera beste zerbitzu pribatu bat jaso behar zuelako.

Horregatik, interesdunak nabarmendu du toki erakundeak kuota berriz kalkulatu behar zuela, gutxienez, Gizarte Zerbitzuei mendekotasun graduaren balorazio berria jakinarazi zientetik.

Gogoetak

- 1.-Ebazpen honen aurrekarietatik ondorioztatu behar da kexagileak bi gairi buruzko kexa duela: lehenengoa, Barakaldoko Udalak emandako erantzunari buruzkoa da, kexagileak uste baitu EELZ ematen zuen enpresak 2017ko abenduaren 1eko grebarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez zituela bete; bigarrenean, berriz, dio zerbitzu hori emateko amak ordaintzen duen prezioa ez dela eguneratu.





Lehenengo gaia baloratzeko, abiapuntua da Konstituzioak langileen grebarako oinarrizko eskubidea babesten duela, eta haren muga bakarra komunitaterako funtsezko gutxieneko zerbitzuak mantentzeko bermea dela; zerbitzu horiek dira herritarren oinarrizko eskubideak edo bizi interes bat betetzearen mende daudenak.

Hizpide dugun kasuan, Lan eta Justiziako sailburuaren 2017ko azaroaren 29ko aginduak, Bizkaiko EELZ ematen duen komunitaterako funtsezko zerbitzuen mantentzea bermatzen duenak, xedatzen duen moduan, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubideak (haiek bermatzea botere publikoen ardura da, eta horretarako, zerbitzuak emateko beharrezkoak diren prebentzio eta aseguramendu neurriak hartuko dira) guztiz babestuta egon behar dira grebarako bidezko eskubidea dagoenean.

Zerbitzu horiek ez dute eragin berbera erabiltzaile guztiengan; izan ere, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko autonomia mailaren arabera dago hori, ebazpen honen aurrekarietan adierazi den moduan. Hala, sailburuaren aginduak ezartzen duenez, muga erabatekoak edo ia erabatekoak (mendekotasunaren II. eta III. graduak) dituzten pertsonak behar dute, zalantzarik gabe, grebak eragindako zerbitzuak baliatzea.

Arrazoi hori dela-eta, ebazpen honen aurrekarietan ere aipatu den moduan, interesdunaren amari normalean ematen zitzaizkion zerbitzuetatik, greba egunean higie pertsonalari lotutako gutxieneko zerbitzua finkatu zen.

- 2.- Ebazpen honetatik ere ondorioztatu daiteke kexagilearen amari arreta eman zitzaiola greba egunean, hau da, EELZren langilea haren etxera joan zela ordubetez lan horiek betetzeko. Baina honako hau era ondorioztatu daiteke: zerbitzua aurrez abisatu gabe eman izanak, kexagileak nahiz amak zer ordutan emango zitzaion ez jakiteak, hau da, greba amaitu zenean (12:30etik 14:30era deituta zegoen) eta normalean baino ordubete gutxiago, jadanik aipatu dugun funtsezko zerbitzuen agindua ez betetzea dakarrela, kexagilearen ustez.

Aurrez eman beharreko abisuari lotuta Barakaldoko Udalak igorritako informazioaren arabera, erakunde horrek onartu du interesdunei ez zitzaiela behar bezala adierazi greba eguneko gutxieneko zerbitzua noiz emango zitzaien; hala, horrelako gertaerarik ez errepikatzen neurriak hartuko dituela iragarri du.

Horretarako konpromisoa hartu izanak eta gai horri buruzko kexa gehiago jaso ez izanak arazoa dagoeneko konponduta dagoela pentsaraztera garamatza.

Amari gutxieneko zerbitzuak emateko ordutegiaren gainean interesdunak adierazitako desadostasunari dagokionez, aipatu behar da, dagokion agintaritzak





finkatu ondoren, enpresa ukituari dagokiola haiek aplikatzea edo praktikan betearaztea, bai eta lan horiek egiteko langileak izendatzea ere.

Garrantzitsua da adieraztea ere, jurisprudentziak dioela gutxieneko zerbitzuak finkatzean grebak duen enpresaren aurkako presio ahalmenari eutsi behar zaiola. Hau da, gutxieneko zerbitzuak ez du funtzionamendu normala bermatu behar, oinarritzkoa dena baizik xede horretarako ezinbestekoa den denboran; ez da inoiz zerbitzuaren funtzionamendu normala bermatu nahi normalean ematen den ordutegiarekin, gatazkarik izango ez balitz bezala, eta ezta mantendu ere hori egitea beharrezkoa ez denean.

Baieztapen horien adibide gisa, jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (lan-arloko sala, 1. atala) 2004ko abenduaren 3an emandako epaiaren zuzenbideko hirugarren oinarrian xedatutakoa transkribatzen da.

“(…)

Ciertamente, ninguna norma obliga o exige que los servicios mínimos se tengan que cumplir durante toda la jornada laboral ordinaria, ni de manera ininterrumpida, sino que los mismos habrán de adecuarse a las necesidades de garantía del servicio esencial de que se trate. Y este que ahora nos ocupa se garantiza, por haberlo determinado el Gobierno Vasco, en los horarios punta de entrada y salida al trabajo. En modo alguno puede entenderse ni exigirse que el cumplimiento estricto de estos horarios deber ser continuada y menos aún que se extienda la consideración de servicio mínimo a periodos en que no existe tal necesidad.

(..)”.

Kexa-espedientean dagoen informazioaren arabera, hizpide dugun kasuan, finkatutako gutxieneko zerbitzuak betetzera behartutako enpresak erabaki zuen interesdunaren amari ordubeteko zerbitzua ematea. Finean, betiko moduan bi orduko zerbitzua eman beharrean (13:30etik 15:30era) greba egunean ordubetekoa eman zitzaion, 14:30etik 15:30era, alegia, egun horretako zerbitzuaren hasieraren ordutegia grebaren amaierarekin egokitu zen (12:30etik 14:30era zen); hala, erakunde honen aburuz, horrek ez du esan nahi aurrez ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ez zirenik.

Horregatik, Arartekoak uste du arrazoirik ez dagoela udalak interesdunari lehenengo gaiari lotuta emandako erantzuna zalantzan jartzeko.

3.-Kexaren bigarren gaia hau da: amari zerbitzua ematen hasi zitzaionetik (2016ko urtarrila) Arartekoan kexa aurkeztu zuen arte (2018ko martxoa) udalak ez du berriz kalkulatu amak EELZgatik ordaintzen duen prezioa, nahiz eta hori egiteko





eskatu eta denbora tarte honetan amaren egoera asko aldatu den; izan ere, mendekotasunaren II. gradutik III. era igo da, eta ahalmen ekonomikoa ere nabarmen murriztu zaio.

Gai hau aztertzeari ekingo diogu, kontu horren gainean udalak emandako bigarren erantzunaren paragrafo esanguratsuenak transkribatuz:

"(...)

*A la hora de realizar los cálculos para el establecimiento del precio público son varias las cuestiones que se tiene en cuenta, y se reflejan en la **Ordenanza Reguladora del Precio Publico del Servicio de Ayuda a Domicilio**, y a continuación aclaramos la forma de proceder:*

*Tal y como se indica, en este último escrito del Ararteko, los **tramos de ingresos** por los que se establece el porcentaje que aporta la persona usuaria al coste del servicio, se basan en la cuantía de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), siempre del año anterior.*

Es decir, en el año 2016 (cuando D^a XXX comenzó a ser usuaria del SAD) la referencia era la cuantía de RGI de 2015 (703,73 euros), en el año 2017: la correspondiente a RGI 2016 (710,89 euros), en el año 2018: la correspondiente a RGI 2017 (721,56 euros) y en este año 2019: la correspondiente a RGI 2018 (732,38 euros). Aclarar que en este año 2019, pese a que en el mes de octubre de 2018, en el debate plenario, se votase en contra la propuesta de tasas y precios públicos 2019, en el caso de la Ordenanza Reguladora del Precio Publico del SAD, es de aplicación esta actualización de la tabla con arreglo a la RGI, tal y como indica la ordenanza: "Las cuantías consignadas en el Baremo se actualizarán anualmente de acuerdo a la cuantía de la R.G.I. establecida para el año anterior al de aplicación de esta Ordenanza".

*Por lo tanto, en cuanto a la actualización de la tabla sobre la Escala de aportación de personas usuarias, **cada año se actualiza y se cargan los tramos de ingresos correspondientes en el Sistema Informático** que realiza los cálculos del precio público a pagar por los usuarios. Esto se aplica a todos los expedientes de SAD de forma general.*

(...)

***Otro dato que se actualiza**, y que afecta a todos los expedientes de forma general, es el **coste del precio hora** (festivo u-ordinario) establecido con el contrato suscrito por el Ayuntamiento con la empresa prestadora del servicio, que varia(rá) en función de la licitación del servicio y del importe de la adjudicación.*





Por otra parte, para realizar el cálculo del precio público se tiene en cuenta la capacidad económica de la persona usuaria, basado en los ingresos económicos, el patrimonio y la unidad convivencial.

*En cuanto a **los ingresos**, en el Ayuntamiento de Barakaldo contamos, desde el año 2017, con acceso a los datos de la Seguridad Social a través de interoperabilidad, por lo que cada año, el sistema informático de **Barakaldo se actualiza de forma automática cada año**. En el caso, de D^a XXX viene reflejado en el sistema informático las revaloraciones de las pensiones de cada año.*

(...)

*En cuanto al **patrimonio** de la persona usuaria y los miembros de la **unidad de convivencia**, solamente se puede realizar mediante comprobación documental por parte de la sección de personas mayores del Área de Acción Social, por lo que cuando se pone en marcha el servicio el usuario aporta la documentación necesaria para el cálculo del precio público a pagar.*

*Sobre estos dos aspectos, el Ayuntamiento de Barakaldo no tiene estipulada ninguna frecuencia concreta para realizar una revisión, ni obligación de realizarlas, **ya que es la persona usuaria quien esta obligada "a notificar al Servicio Social de base o a la Sección de Personas Mayores, cualquier cambio en la situación económica o familiar que pueda afectar a la prestación del servicio, a la organización del mismo o al cálculo del precio público"**. Esta cuestión se informa y traslada de forma expresa a cada usuario en el "Documento de aceptación del precio público" (anexo 1 y 2).*

Sin embargo, desde el Área se realizan revisiones y se solicita la documentación, como mera medida de control, como ya se ha explicado, sin una periodicidad fija establecida. Las desviaciones que se detectan por lo general son mínimas, sin un impacto destacable para el Ayuntamiento, ya que aquellas que si tienen cambios sustanciales, son los usuarios y usuarias quienes solicitan (como es obligación) la revisión con la documentación correspondiente.

En el caso concreto, de la usuaria D^a. XXX, a través de los numerosos escritos presentados por D. XXX, en alguna de las entrevistas y correos electrónicos mantenidos con las trabajadoras sociales, éste pregunta acerca de cuando se iba a realizar el recalcular por parte del Ayuntamiento, a lo que fue respondido que en el año 2018 se iba a realizar el requerimiento de documentación a todas las personas usuarias del SAD. Durante el segundo semestre de 2018, se analizó, revisó y actualizó toda la documentación de entorno a 650 expedientes que gestionamos, y en febrero de 2019, se volcaron todos los datos, de todos los expedientes en el sistema



informático, para que los cambios que pudieran haber se apliquen de forma conjunta a todas las personas usuarias del SAD, al mismo tiempo.

Insistir en que el Ayuntamiento realice una revisión documental, cuando considere oportuno, no implica para nada que los usuarios y usuarias, deban presentar la solicitud de revisión del precio público si hubiera variaciones en el patrimonio o en la unidad de convivencia, porque es más, tiene la obligación.

*En el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Baracaldo, **no nos consta ninguna solicitud de revisión del precio público del SAD, y menos ningún tipo de documentación acerca de la situación económica respecto al patrimonio de D^a XXX.** Tan sólo constan documentación de la usuaria, a raíz del requerimiento general realizado a todas las personas usuarias del SAD, durante el pasado año, la revisión de la documentación de todos los expedientes y la actualización realizada en misma fecha a todos los usuarios y usuarias en febrero de 2019 (una vez finalizada la revisión).*

En el caso de D^a XXX, una vez realizada la revisión de la documentación aportada se ha producido una modificación importante en el precio público de SAD a abonar, derivada principalmente de una despatrimonialización, justificada por la contratación de personal de ayuda a domicilio de forma privada (como consta en la relación de movimientos bancarios aportada en el requerimiento).

A modo de resumen, la forma de aplicar la ordenanza reguladora y por lo tanto de proceder por parte del Área de Acción Social es la siguiente:

- *Se actualiza cada año, los datos de la tabla de escala de aportación de personas usuarias de la Ordenanza en base a la RGI.*
- *Se actualizan los cambios que pudieran surgir de modificaciones en la Ordenanza de Precio Público, si los hubiere.*
- *Se actualiza anualmente en el sistema informático que calcula el precio público del SAD, los ingresos de las pensiones a través de la interoperabilidad.*
- *Se actualizan los datos sobre el Patrimonio y la Unidad convivencial:*
 - o *A solicitud de la persona usuaria ante cualquier cambio en la situación económica o familiar que pueda afectar a la prestación del servicio, a la organización del mismo o al cálculo del precio público (estando en obligación de hacerlo).*
 - o *A requerimiento del Área de Acción Social de la documentación necesaria, para lo que no hay establecida ninguna periodicidad, como mera medida de control.*

(...)"



Txostenean ziurtatzen denez, nahiz eta, erabiltzaileak egindako ekarpenaren ehunekoari dagokionez salbu, EELZren prezio publikoa arautzen duen ordenantzaren hura eguneratzeko data zehatz bat ezartzen ez den, udalak pentsioei eta zerbitzuaren kostuari buruzko informazioa eguneratzen du urtero eta erabiltzaileen kuota kalkulatzeko du berriz; hala, ia kasu guztietan, kuota hori oso gutxi aldatzen da.

Txostenean ere ziurtatzen denez, ondareari eta bizikidetzaren unitateari buruzko datuak eguneratzeko, erabiltzaileek jakinarazi behar diete EELZren gizarte langile arduradunei edo oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileei zein den beren egoera sozio-ekonomikoa edo egoera sozio-familiarra, horrek guztiak zerbitzuari, haren antolaketari edo prezio publikoaren kalkuluari eragin baitiezaieke.

Laburbilduz, udaleko txostenean adierazitakotik ondorioztatu daiteke Barakaldoko Udalak zerbitzuko kuota berriz kalkulatzeko dituela eskura ditzakeen datu orokorren arabera (zerbitzuaren kostuan izan daitekeen aldaketa, Gizarte Segurantzaren errentak eta ekarpenaren ehunekoak); hala, erabiltzaileen betebeharrak izango da, xede berarekin, ondareari eta bizikidetzaren unitateari buruzkoak eguneratzea. Kontu horri dagokionez, txostenean ere jasotzen da kexagileak ildo horretan egindako eskaerarik ez dela jaso udalean.

4.-Lortutako erantzunari dagokionez, hasteko aipatu behar da azken baieztapen hori deigarria egin zaiola erakunde honi udaleko txostenean bertan adierazten denean interesdunak askotan galdetu ziela Gizarte Zerbitzuei noiz kalkulatuko zuten berriz amaren kuota, eta jakin badakienean behin baino gehiagotan adierazi dizkiela zerbitzu horietara esleitutako pertsonen amaren inguruabar berriak.

Bestalde, kuota zehazteko kontuan hartu beharreko laugarren elementuari erreferentzia bat egitea faltan sumatzen da (lehen aipatu duguna, dagoeneko), Barakaldoko Udaleko EELZren prezio publikoa arautzen duen udal ordenantzaren 4. artikulua ezartzen duenari:

“(...)

4. DEDUCCIONES

No obstante lo anterior, se establecerán las siguientes deducciones y criterios complementarios:

(...)

b) Personas valoradas en Grado III Gran Dependencia y puntuación obtenida en el Baremo de Valoración de Dependencia (BVD) de 90 a 100 puntos





(antiguo nivel 2) y de 75 a 89 puntos (antiguo nivel 1). La deducción por persona será de 120 €/mensuales.

(...)"..

Artikulu horretan ezarritakoa irakurri ondoren, Arartekoak jasotako informazioaren esparruan, honako hau ondorioztatu daiteke: ondareari eta bizikidetz-unitateari buruzko datuekin batera, kenkari hori aplikatzeko beharrezkoa dela erabiltzaileek udalari mendekotasun graduaren aldaketaren berri ematea.

Interesdunak erakunde honi emandako dokumentazioaren artean, amaren mendekotasun graduaren aldaketari buruzko informazioa ematen zuen udalari igorritako mezu elektronikoak daude (2016ko irailetik abendura bidalitakoak); beste mezu elektroniko batzuk ere agertzen dira, eta horien bidez, udalak jakinarazi zion aldaketa hori zela-eta zerbitzuaren orduak gehituko zitzaizkiola.

Hau da, egiaztatu da udalak mendekotasun graduaren aldaketaren berri izan zuenean zerbitzu ordu gehiago ematea erabaki zuela, baina ez ordenantzan ezarritako kenkaria aplikatu zenik.

Hizpide dugun kasuan kenkari hori aplikatu izan balitz, prezioa ofizioz berrikustearen ondorioz eta toki erakundeak kalkulaturako prezio berriaren ondorioz, aurtengo otsailetik aurrera, interesdunaren amak hilean 127 euro gutxiago ordaindu beharko zuen 2016tik ordaindu duenarekin alderatuz (160,25 eurotik 43,09 eurora).

Aldea oso handia da, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezko autonomiarik ez duen mendeko pertsona batentzat, batez ere; horretarako, udalak emandako laguntzarekin batera, beste laguntza pribatu bat ere behar du.

Hori guztia dela-eta, gomendio hau egiten diogu Barakaldoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak—11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz:

GOMENDIOA

berrikus dezala kexagilearen amaren mendekotasun graduaren aldaketak (2016ko irailean jakinarazi zitzaion udalari) data horretatik 2019ko otsaila arte ordaindu zuen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kuotan izandako eragina.

